- Digitalización de los Planos de la Red de Saneamiento y Pluviales: El levantamiento topográfico de las redes y su digitalización, permitirán una mejor planificación y mantenimiento de nuestras infraestructuras subterráneas.

- Pista de Squash: Estamos trabajando en la renovación de esta instalación deportiva, solventando los graves problemas de humedad primero y creando una pista de squash óptima para el juego y duradera en el tiempo.

Proyectos en Fase de Licitación:

- Protección del tramo peligroso a la salida del túnel de la vía: Este proyecto tiene como objetivo mejorar la seguridad en esta área crítica, protegiendo a los peatones y cicloturistas que lo transitan.

- Nuevos aparcamientos en las inmediaciones del Sepe: La ordenación adecuada y creación de nuevos espacios de aparcamiento aliviará uno de los puntos con más tránsito y problemas de estacionamiento de vehículos del pueblo.

Como se ve en este ejemplo, estamos trabajando en crear nuevos aparcamientos en el pueblo y por favor, pedimos nuevamente, no obstruir aceras, no estorbar a los peatones, aparcar en zonas habilitadas y marcadas expresamente para estacionamiento y respetar los tiempos marcados.

Por último, seguimos trabajando con las usuales operaciones de mantenimiento para asegurar que nuestras instalaciones y espacios públicos se mantengan siempre en buenas condiciones.

SERVI DENA
Garbiketarako produktuen salmenta eta instalazioa.
MALE REKA KUSTOM
Arropa eta osagarri pertsonalizatuak.
ONGI PASA BESTAK!
Ameztia zeharbidea, 4 - DONEZTEBE
Tlf. 948 451 571

ONGI PASA BESTAK!
GAR MENDI TX
BIZIKLETEN SALMENTA, KONPONKETA ETA ALOKAIRUA
• Rosa Seminario kalea, 13 •
DONEZTEBE
Tlf. 948 451 571 - 747 402 958

Arozena ostatua
ONGI PASA BESTAK!
T. 948 450 443 - Leitzako errep. 84 - Doneztebe



EL BAÚL DE Mari Cruz
www.elbauldemaricruz.com
DONEZTEBE
C/ Parroquia,11
948450112
PAMPLONA
Av. Baja Navarra,11
948228425

ONGI PASA BESTAK
talleres EDERKI tailerra
CITROËN
Leitza errepidea 57
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
tallereserderki@soc.redcitroen.com
Latigillo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK



zergalan asegi
ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU
- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzua
- Datuen babesa
www.zergalan.es - info@zergalan.es
Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300
F. 948 580 648
Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395
F. 948 451 304

TXARUTA
Fontanería | Calefacción | Gas | Energías renovables
AEROTERMIA, BIOMASA, GEOTERMIA
Energia Berriztagarrien instalazioetan espezialistak
Ingurumenarekin konprometituak
FINANTZIAZIO AUKERA





Saunier Duval Vaillant De Dietrich Kosner Thermor KWB VIGAS
Nafarroako Gobernuak baimendutako instalatzaileak
Zaldubia Pol. A nabea
31730 IRURITA 948 451 728
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
Sto. Domingo
31750 GAZTELU 659 234 825

Herria denon artean eginez
Esker mila herrian erosteagatik
doneztebeko merkatari eta zerbitzu elkartea
Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa
Comercios de Navarra
Nafarroako dendak











# DONEZTEBEKO BANDERA
# BANDERA DE DONEZTEBE

**Doneztebeko alkate andreak eta udalak gonbidatuta, herriko banderarekin loturiko zertzelada historiko batzuk eskaini nahi dizkizuet. Horrez gain, jai zoriontsuak opa dizkizuet, eta primeran pasa dezazuela.**

**Herriko banderari buruz dugun lehen berria 1579koa da. Urte hartan, defentsarako prest zeuden gizonen aipamena egin zen, beren bandera eta atabalarekin ikuskatze ordenan paratuta. 38 bizilagun aurkeztu ziren armekin, horietatik 19 arkabuzlariak, eta gainerakoak baleztariak eta lantzak eta errodelak (ezkutuak) zeramatzaten pertsonak. Ez da deus erraten bandera horren tipologiaz, nahiz eta ziur aski zerikusia zuen Agorreta etxeko armarriarekin (eskuinera begiratzen duen basurdea, haritz baten enborraren ondotik pasatzen). Denborarekin udal armarriaren elementu garrantzitsuetako bat bihurtu da.**

**Dokumentuetan agertu den bigarren berria (udal artxibo zaharreko inbentarioko 178 zenbakidun dokumentua) 1637an egin zen bandera bati egiten dio erreferentzia, zetazko tafeta-oihal baten gainean, zilarrezko jineta baten (banderaren haga) inguruan paratua. Frantziak 1635ean deklaratutako gerraren testuinguruan egin behar izan zen, eta gerra horretako gertaera garrantzitsuenetariko bat frantziarrek 1638an Hondarribia setiatzea izan zen. Horrek Espainiako Felipe IV.aren armada tropak mobilizatzera behartu zuen. Aragoitik eta Nafarroatik etorri ziren soldaduak Belatetik eta Bidasoa ingurutik**

Por invitación de la Sra. alcaldesa y Ayuntamiento de Santesteban, quiero dedicaros unas pinceladas históricas relacionadas con la bandera de la villa. Y desearos unas felices fiestas, y que lo paseis estupendamente.

La primera noticia que tenemos de la bandera del pueblo, se remonta a 1579, en que se hizo reseña de los hombres disponibles para la defensa, con su bandera y atabal (tambor) en orden de revista. Se presentaron con sus armas 38 vecinos, de ellos 19 arcabuceros, y el resto ballesteros y gentes con lanzas y rodelas (escudos). No se dice nada de la tipología de esta bandera, aunque probablemente tenía que ver con el escudo de armas de la casa de Agorreta (el jabalí que mira a la derecha, y pasa junto al tronco de un roble), que con el tiempo se ha convertido en uno de los elementos importantes del escudo municipal.

La segunda noticia documental (doc. nº 178 del inventario del archivo municipal antiguo), hace referencia a una bandera que se hizo en 1637, sobre tela de tafetán de seda colocada alrededor de una jineta de plata (asta de la bandera). Se debió elaborar en el contexto de la guerra declarada por Francia en 1635, uno de cuyos episodios importantes fue el asedio de Fuenterrabía por los franceses en 1638. Lo que obligó al ejército de Felipe IV de España a movilizar tropas. Los efectivos que vinieron de Aragón y Navarra pasaron por Velate y la zona del Bidasoa. Y la villa de Santesteban fue convertida en plaza de armas, en la que se alojaron distintos contingentes de infantería y caballería que sumaron un total de 6.000 hombres.



→




MC ZERBITZUAK

Garbiketak eta sasiak garbitzea
Kimaketak eta lorategiak
Bideak eta paretak
Instalazioak garbitzea (publikoak eta pribatuak)

T. 676 53 95 30
mcz@mcz.eus

Jai zoriontsuak!













**pasa ziren, eta Doneztebeko hiribildua arma-plaza bihurtu zuten. Bertan, oinezko eta zaldizko taldeek hartu zuten ostatu, eta guztira 6.000 gizon izan ziren.**

**Horien artean, Martin Redinen agindupean ziren nafar tropak zeuden. Redin Jerusalemgo San Joan**

**Ordenako Nafarroako priorea zen, eta handik denbora batera Maltan egoitza duen San Joan Ordenaren Maisu Handi izendatu zuten. Valettako San Joan katedralean lurperatuta dago. Redin historian hain goraipamen handia jaso zuen nafar bakarra izan zen. Felipe IV.aren armadak eta Hondarribian setiatutakoek bi suren artean paratu zituzten tropa frantziarrak, eta hondarrean Hondarribiko setioa altxatu zuten 1638ko irailaren 8an.**

**Suposatzen dugu (oihala aztertu behar duten Nafarroako Ondare Historikoko adituek kronologia baieztatzea falta da) 1637ko bandera egurrezko kutxatila batean gordetakoa dela, 1951ko ohar batekin, bertan udal idazkariak adierazi zuen antzinako bandera gordetzen zela, arrunt hondatuta zegoelako. Urte horietan egin zen egungo bandera, Ceutatik ekarritako zetaz, Espainiako gerra ondorengo eskasiarengatik ez baitzen hura lortzeko bertze modurik aurkitu. Bandera zahar horri, eta bere ereduari jarraitzen dion gaur egungoari, hurrengo AGURRA eskaini nahi diot.**

Entre ellos las tropas navarras al mando de Martín de Redín, prior de la Orden de S. Juan de Jerusalén en Navarra, que fue nombrado tiempo después Gran Maestre de la Orden sanjuanista con sede en Malta, y está enterrado en la catedral de S. Juan, de La Valetta. Fue el único navarro que recibió tan alta distinción en la Historia.

El ejército de Felipe IV junto con los asediados en Hondarribi, colocaron entre dos fuegos a las tropas francesas, que finalmente levantaron el cerco de Fuenterrabía el 8 de septiembre de 1638. En recuerdo de ello se celebra el famoso alarde de la localidad fronteriza.

Suponemos (a falta de confirmación de la cronología, por expertos de Patrimonio Histórico de Navarra, que tienen que analizar la tela), que la bandera de 1637 es la que se ha conservado en un estuche de madera, con una nota de 1951, en la que el secretario municipal indicó que se guardaba la antigua enseña, por estar muy deteriorada.

Y fue por esos años cuando se elaboró la bandera actual, con seda traída desde Ceuta, ya que por las penurias de la postguerra española no se encontró otra forma de conseguirla. Quiero dedicar a esta antigua bandera, y a la actual que sigue su modelo, el siguiente SALUDO

**Agur, Doneztebeko bandera,**
**Herri honetako jendearen**
**Ausardia eta ohorea irudikatzen dituzu**
**Egun banderadun diren eta izan zirenek**
**Harrotasunez dantzatu zaituzte**
**Corpus Christi egunean, Txit Santuaren aitzinean,**
**Eta alkatearen eta udal agintarien aitzinean,**
**Gure zaindari San Pedroren bestan.**
**AGUR Doneztebeko bandera, aunitz urtez!!**

Saludos, bandera de Santesteban,
Representas la valentía y el honor
De las gentes de este pueblo.
Has sido bailada con orgullo,
Por los abanderados que son
Y en su tiempo fueron.
Ante el Santísimo en la festividad del Corpus Christi,
Y ante el alcalde/alcaldesa y autoridades municipales,
En la fiesta de nuestro patrón, San Pedro.
AGUR bandera de Santesteban, por muchos años!!!

**Mª Isabel Ostolaza Elizondo**














# BAKE EPAITEGIA
# JUZGADO DE PAZ

**Duela urte batzuk, jaietako egitaraurako artikulu txiki bat idatzi nuen, gure herriko Bake Epaitegiaren funtzionamendua azaltzen saiatuz: norentzako den, non eta noiz joan daitekeen. Eta orain, beste behin, gai honi buruz hitz egiten dut, izan ere, ia 23 urte Bake Epaile titular gisa jardun ondoren, atseden hartzeko garaia heldu da. 2024ko urrian, nire dimisioa aurkeztu nuen Udalean eta Iruñeko Justizia Jauregian, 2024ko abenduaren 31n indarrean jartzeko datarekin.**

Hace unos años escribí un pequeño artículo para el programa de fiestas, en el que traté de explicar el funcionamiento del Juzgado de Paz en nuestro pueblo: a quién da servicio, dónde y cuándo se puede acudir. Y ahora, una vez más, vuelvo a hablar de este tema, ya que tras casi 23 años como Juez titular, ha llegado la hora de descansar. En octubre de 2024 presenté mi dimisión al Ayuntamiento y al Palacio de Justicia de Pamplona, con fecha efectiva el 31 de diciembre de 2024.

**2024ko azaroaren 15ean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean Bake Epailearen lanpostu hutsaren berri eman zen eta eskaerak aurkezteko epea zabaldu zen. Pertsona bakar batek aurkeztu zuen bere burua: Paula Zunzarren Bañares, eta aurten, martxoan hartu zuen kargua.**

El 15 de noviembre de 2024 se publicó en el BON la vacante del cargo y el plazo para presentar solicitudes. Se presentó una única persona: Paula Zunzarren Bañares, quien tomó posesión del cargo en marzo de este año.

**Denbora honetan gauza asko ikusi eta egin behar izan ditut. Lege batzuk bete behar dira, noski, baina beti saiatu naiz zentzuz jokatzen, askotan, zentzurik arruntena ez baita ohikoena izaten. Egoerak modu logiko, arrazoizko eta objektiboan aztertzen saiatu naiz, beti konponbide justuak bilatuz.**

Durante este tiempo he visto muchas cosas y me ha tocado hacer otras tantas. Evidentemente, hay leyes que cumplir, pero siempre me he dejado guiar por el sentido común, que, en muchos casos, parece ser el menos común de los sentidos. He intentado analizar las situaciones de forma lógica, razonable y objetiva, buscando siempre soluciones justas.

**Argi dago hori esperientziaren eta gai bakoitzaren pertzepzioaren araberakoa dela. Batzuek besteek baino zentzu gehiago izan dezakete, bizi-esperientziaren arabera.**

Claro está que esto depende de muchos factores, sobre todo de la experiencia y la percepción de cada asunto. Hay quienes tienen más sentido común que otros, precisamente por su bagaje vital.

**Baina, zer da zentzu komuna? 2002an hasi nintzen definizioak bilatzen hiztegi ospetsuenetan. Cambridge hiztegiak honela definitzen du: "bizimodu arrazoizko eta seguru bat izateko beharrezkoa den oinarrizko ezagutza praktikoa eta irizpidea", eta Oxfordek: "ulermen arrunta, normala edo batez bestekoa, zeinaren gabezia gizakia ergela edo zoroa bihurtuko luke". RAEk berriz, honela definitzen du: "ulertzeko edo modu arrazoizkoan epaitzeko gaitasuna".**

Pero, ¿qué es el sentido común? En 2002 comencé a buscar definiciones en los diccionarios más prestigiosos. El de Cambridge lo define como "el nivel básico de conocimiento práctico y criterio que todos necesitamos para ayudarnos a vivir de una manera razonable y segura", mientras que el Oxford lo describe como "una comprensión ordinaria, normal o promedio, sin la cual un hombre sería tonto o loco". La RAE, por su parte, lo define como "la capacidad de entender o juzgar de forma razonable".

**Voltairek esaten zuen ez dagoela beti adostasunik egoera bakoitzean zer den logikoa edo espero zitekeena. Horregatik, zentzuz jokatzea da onena, eta praktikan aplikatzea. Gaitasun horrek esperientzian oinarritutako erabaki arrazoizkoak hartzea ahalbidetzen digu, eta ezagutza espezializaturik gabe bizitzan moldatzea, Bake Epaileen kasuan bezala.**

Voltaire decía que no siempre hay unanimidad sobre qué es lo lógico o esperable en cada situación. Por eso, lo más sensato es aplicar la sensatez a los asuntos prácticos. Esa capacidad nos permite tomar decisiones razonables basadas en la experiencia, y desenvolverse en la vida diaria sin necesidad de conocimientos especializados, como es el caso de los Jueces de Paz.

→

**RAEren eta Cambridgeren definizioekin geratzen naiz: zentzudunenak iruditzen zaizkit eta nire irizpideekin bat datoz.**

Me quedo con las definiciones de la RAE y Cambridge: me parecen las más acertadas y afines a mis criterios.

**Hala ere, zientziak zalantzan jartzen du terminoaren fidagarritasuna eta unibertsaltasuna, subjektiboa eta aurreiritziez betea dela argudiatuz. Zentzu komuna dena batzuentzat, ez da halakoa besteentzat. Kulturaren, hezkuntzaren, gizarte--arauen eta pertsona bakoitzaren esperientzien araberakoa da. Batzuk analitiko eta hausnarkorragoak gara, eta beste batzuk inplultsiboagoak, eta horrek eragina izan dezake zentzuz jokatzeko gaitasunean.**

Sin embargo, la ciencia cuestiona la fiabilidad y universalidad del término, al considerarlo subjetivo y lleno de sesgos cognitivos. Lo que para unos es de sentido común, para otros no lo es. Todo depende de la cultura, educación, normas sociales y experiencias personales de cada uno. Hay quienes son más analíticos y reflexivos, y otros más impulsivos, lo que puede influir en su capacidad para aplicar el sentido común.

**Berdintasuna, aukera berdintasuna, eskubideak, inpartzialtasuna... denak dira pertsonak errespetuz tratatzeko printzipioak, berezitasunak kontuan hartuta. Aristotelesek, "Etika Nikomakorako" liburuan zioen: "ekitatezkoa da zuzena, baina ez legearen zentzuan, justizia erreala zuzentzeko baizik". Don Quijotek, berriz, bere esklabo leialari, Sanxori zioen: "ekitateak lekua izan dezakeenean, ez ezazu legearen zorroztasuna guztiz aplikatu; epaile errukitsuaren ospea ez baita zorroztasunekoa baino txarragoa". Tomas Akinokoak zioen: "justizia errukirik gabe krudeltasuna da; eta errukia justiziarik gabe, desegitea". Eta Cervantesek: "justiziaren makila okertzen baduzu, ez dadila izan oparien pisuagatik, errukiarenagatik baizik".**

Equidad, igualdad de oportunidades, derechos, imparcialidad… todo ello implica tratar a las personas con respeto, teniendo en cuenta sus diferencias. Aristóteles, en su Ética a Nicómaco, decía que lo equitativo es justo, pero no en el sentido legal, sino como una corrección de la justicia real. Don Quijote recomendaba a su fiel escudero Sancho: "cuando pudiere y debiere tener lugar la equidad, no cargues todo el rigor de la ley al delincuente, que no es mejor la fama del juez riguroso que la del compasivo". Y Santo Tomás decía: "justicia sin misericordia es crueldad, y misericordia sin justicia es disolución". Binomio inquebrantable. Cervantes también apuntaba: "si acaso doblares la vara de la justicia, no sea por el peso de dádiva, sino por el de la misericordia".

**Hau guztia nire ibilbidearen hasieran irakurtzen nuen: liburuetan, kroniketan, autore ezberdinen artikuluetan eta justiziarekin lotutako aldizkarietan.Beharrezkoa al da? Agian ez, baina ni horrelakoa naiz: jakin nahi dut non nabilen eta nola hobetu edo lagundu dezakedan.**

Estas ideas me marcaron, sobre todo al inicio de mi andadura. Leía mucho: libros, crónicas de autores y revistas relacionadas con la justicia. ¿Era necesario? Quizás no, pero yo soy así: me gusta saber por dónde ando y en qué puedo mejorar o ayudar.

**Bake Epaile gisa egin dudanaren berri ematea besterik ez dut egin: adiskidetze ekintzak, Iruñeko Justizia Jauregitik esleitutako epaiketaren bat... Halaber, urtebetez Donamariako Bake Epaile izendatu ninduten eta Malerrekako herri bateko epaiketa batean parte hartzea egokitu zitzaidan, baina herriaren izena ez dut aipatuko inor mintzerik ez izateko.**

Simplemente he compartido mi experiencia como Juez de Paz de Doneztebe: actos de conciliación, algún juicio delegado desde el Palacio de Justicia de Pamplona… Fui nombrado también por casi un año Juez de Paz de Donamaría y me tocó intervenir en un juicio de un pueblo de Malerreka cuyo nombre prefiero no citar.

**Nire aurreko batzuk ere aipatu nahi ditut, ezagunak izan baitziren niretzat, eta, irakurle, 70 urte inguru badituzu, agian ezagutuko dituzu batzuk:**

Quiero también recordar a algunos de mis predecesores, conocidos por mí y, si tú lector eres septuagenario, seguro que te suenan:

**1950etik hona:**

Desde 1950:

**Jesús Echavarri Ostiz, Gerardo Gracenea, José Ma Zubicoa Echeverria, José Macicior Reparaz, Francisco Eraso Alduncin, Pedro Zugarramurdi Zozaya, Javier Elizalde Colau, Pedro Maylin Tellechea, José Manuel Sarratea Arrupea, Luis Miguel Apecechea Echenique.**

Jesús Echavarri Ostiz, Gerardo Gracenea, José Mª Zubicoa Echeverria, José Macicior Reparaz, Francisco Eraso Alduncin, Pedro Zugarramurdi Zozaya, Javier Elizalde Colau, Pedro Maylin Tellechea, José Manuel Sarratea Arrupea, Luis Miguel Apecechea Echenique.







**1950 baino lehen:**

Anteriores a 1950:

**José Ma Lacar Aguirre, Eusebio Echavarri Osinaga, Eduardo Lasa Reparaz, José Sorozábal Echenique, Porfirio José Jadraque, Luis San Bartolomé, Manuel Zubicoa... eta seguru asko baten bat ahaztu egin zait.**

José Mª Lacar Aguirre, Eusebio Echavarri Osinaga, Eduardo Lasa Reparaz, José Sorozábal Echenique, Porfirio José Jadraque, Luis San Bartolomé, Manuel Zubicoa… y seguro que me dejo alguno en el tintero.

**Garai haietan lan zailagoa zuten guztiek, orduan Bake Epaileak etxetik kanpo edo egoera arraroetan hildakoen gorpuak jasotzeko betebeharra baitzuen, herrikoak izan edo ez. Nire kasuan, behin bakarrik eskatu zuten nire presentzia: etxetik kanpo heriotza naturala izan zuen herritar baten kasuan.**

Todos ellos realizaron un trabajo mucho más duro, ya que entonces el Juez de Paz debía levantar cadáveres de personas fallecidas fuera de su domicilio o en circunstancias extrañas, fueran del pueblo o de fuera. En mi caso, solo tuve que acudir una vez, por el fallecimiento natural de un vecino fuera de su hogar.

**Doneztebekoa zen idazkari bakarrari ere aipamen berezia egin nahi diot. Ez nuen ezagutzen, baina haren berri oso ongi eta askotan entzun dut: Narcisa San Martín Astiz. Garai hartan, idazkariek gaur egun baino funtzio gehiago izaten zituzten.**

También quiero hacer mención de la única secretaria que fue de Doneztebe. No la conocí, pero he oído hablar mucho y muy bien de ella: Narcisa San Martín Astiz. En aquella época, los secretarios y secretarias tenían más funciones que hoy en día.

**Ia 23 urte igaro dira, eta egia esan, oso esperientzia interesgarria izan da. Ezin da irudikatu ere egiten herritarrek zer eskaera egiten duten: batzuk justifikatuak, eta beste batzuk... hobe ez komentatzea.**

Han pasado casi 23 años. Ha sido una experiencia muy interesante. Uno no se imagina las demandas que presentan los vecinos: algunas justificadas, otras que… en fin, mejor no comentar.

**Ez dut ahaztu nahi eta bihotzez eskertu nahi "nire" idazkaria, Sagrario Aechu, zeinak uneoro lagundu nauen egoera ezberdinetan. Haren laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen ezer egitea.**

No quiero olvidar y agradezco de corazón a "mi" secretaria, Sagrario Aechu. Sin ella, nada hubiera sido posible. Siempre estuvo ahí, ayudándome en todo momento y circunstancia.

**Eta ezin dut amaitu nire ordezkoari —Paula Zunzarren— zorte onena opa gabe. Jakinduria eta ondo egitearekin jardun dezala.**

Y no puedo menos que desear a mi sucesora, Paula Zunzarren, el mayor de los aciertos y éxitos en su nuevo cargo. Que lo desempeñe con sabiduría y buen hacer.

**Eskerrik asko Doneztebeko herritar guztiei, edozein arrazoi dela medio epaitegitik pasa zaretenoi. Zuen eskaerak ase baziren, eskerrik asko. Eta bestela... agian egia da zentzuzkoena ez dela zentzurik ohikoena. Bakoitza bere modura...**

Gracias a todos los doneztebarras que, por cualquier motivo, habéis pasado por el juzgado. A quienes quedasteis satisfechos, gracias. Y a quienes no… quizá sí que es cierto que el sentido común es el menos común de los sentidos. Cada uno…

**Pedro Mª Bañares Ciganda**

# DONEZTEBARRAK MUNDUAN

## Ibai Ordax (Doneztebe, 1988)

**Elkarrizketa hau egin zen momentuan, Ibai Grezian zegoen Asiara bidean, bere bizikletarekin Europan zehar hiru hilabetez bidaiatu ondoren.**

**Ibai Ordax:**

**"Hilabeteetako bidaia hau pixkanaka prestatzen joan zen, bizpahiru egunez bizikletarekin nindoan, ondotik Terueleraino joan nintzen menditik ibilbidea eginez. Horrelako zerbait serioski egitea pentsatu nuen Doneztebetik Poloniara bizikletaz Niko ikustera joan nintzelarik. Itzultzean, ez nion pentsatzeari utzi. Pixkanaka handiena saltzen joan nintzen, Donezteben nire bizitza pixka bat 'stand by'-n jartzea suposatzen baitzuen.**

**Etxetik atera nintzenetik garbi neukan zein herrialdetatik pasako nintzen, eta guti goitibeheiti zein ibilbide egin nahi nituen, betiere errepideetatik ahalik eta gehien urrundu nahian. Klimak, elurrak batez ere, ibilbideak aldarazi dizkit, batez ere, Bosnian (hasierako planetan ez zegoen herrialdea) eta Montenegron.**

**Nire gainean daramat dena, ahalik eta autosufizienteena izateko: kanpin-denda eta lo egiteko guzia, gasolinazko sukaldea, udako eta neguko arropak eta, "luxu" gisa, aulki tolesgarri bat. Hilabetean 2 aldiz gelditu ohi naiz harrapatzen dudan ostatu merkeren batean, bateriak kargatzeko, arropa garbitzeko, nire burua ongi garbitzeko... Katalunian, Frantzian eta Albanian ere etxeren batean hartu naute deusen truke.**

**Ibilbidea**

**Urtarrilaren 5ean atera nintzen etxeko atetik. Lehen eguna erraza izan zen, Mutiloan Jon Bru nire zain baitzegoen, eta bertan arroz goxo bat, dutxa eta ohatzea. Gero, Tossa de Marreraino joan nintzen, Ramón Saguesi zuzenean eskerrak emateko, aunitz lagundu baitzidan egin nizkion mila eta bat galderak erantzuten. Hortik Toulousera Niko berriz ikustera. Frantziatik, Italiara, Liguriako goi bidetik pasatuta (ahal izan nuena), gero Toskanara jo nuen eta Esloveniara igo nintzen, hori ere ez zegoen planetan. Ondotik, Kroazia, eta bertatik Bosniara desbideratu nintzen. Jarraian Montenegro, Albania eta oraintxe bertan Grezian nago.**

*En el momento de esta entrevista, Ibai se encontraba en Grecia, después de tres meses de viaje por Europa con la única compañía de su bicicleta, camino de Asia.*

Ibai Ordax:

"Este viaje de meses por el mundo se fue gestando poco a poco, me iba dos o tres días con la bici, después fui hasta Teruel con un recorrido por montañas vacías. Lo que ya me hizo plantearme algo así seriamente fue cuando me fui de Doneztebe a Polonia en bici a ver a Niko. A la vuelta no dejé de pensarlo. Poco a poco fui vendiendo lo mayor, porque suponía poner un poco en 'stand by' mi vida en Doneztebe.

Desde que salí de casa tenía claro los países por los que iba a pasar y más o menos, los recorridos que quería hacer, siempre intentando alejarme lo máximo posible de las carreteras. El clima, sobre todo la nieve, me ha hecho modificar los recorridos sobre la marcha, sobre todo en Bosnia (que no me estaba en los planes) y en Montenegro.

Llevo todo conmigo encima para ser lo más autosuficiente posible, desde la tienda de campaña con todo para dormir, hasta la cocina a gasolina, ropa de verano e invierno y como "lujo" una silla plegable. Al mes suelo parar 2 veces en algo barato que pille, para cargar baterías, limpiar ropa, limpiarme bien... También en Catalunya, Francia y Albania me han acogido en casas por nada a cambio.

Recorrido

Salí el 5 de enero de la puerta de mi casa. El primer día fue fácil, porque en Mutilva Jon Bru me estaba esperando con un rico arroz, ducha y cama. Después, hasta Tossa de Mar, para dar las gracias en persona a Ramón Sagues, que me ayudó mucho con mis mil y una preguntas. De ahí para Toulouse a ver a Niko de nuevo. De Francia, para Italia pasando por la alta vía de Liguria (lo que pude), tiré para la Toscana y subí para Eslovenia, que tampoco estaba en los planes. Después Croacia, de Croacia el desvío para Bosnia no planeado Montenegro, Albania y ahora mismo Grecia.





**Asmoa Turkiara joatea da, eta gero, Georgiara eta Armeniara. Behin Armenian nagoelarik, urteko zein hilabetetan nagoen ikusi beharko dut... Azken helmuga gisa Mongoliara iristea gustatuko litzaidake, zenbait herrialdetatik pasatuta. Baina badakit, aurten ez naizela Mongoliara iritsiko , eta ez nagoela mongoliar negurako prest; beraz, desbideratu egin beharko dut, negua pasa, eta jarraian, berriro bidaiatzeari ekin.**

**Komunikazioa**

**Telefonoz roaming bidez komunikatzeko arazo handirik ez dago. Egunez telefonoa hegaldi moduan paratzen dut bateria aurrezteko, eta noizean behin, deiren bat egin, eta Whatsapp mezuren bat igortzen dut, batez ere, gurasoei. Sorpresa Bosnian izan nuen; izan ere, bertan ez nuen sarerik, ez deus, eta erran zidaten herrialde horietan ez zutela hitzarmenik. Ondotik esim txartel bat erabili behar izan nuen Bosnian, Montenegron eta Albanian. Orain, Grezian nago, eta berriz Europa dirudi (ironia). Botikin txiki bat daramat oinarrizko gauzekin. Erizain diren bi lagun handiri eskerrak eman behar dizkiet, denetik eman zidatelako, Estitxu eta Maddi. Europan barna, Europar Osasun Txartelarekin nabil, baina Asian ibiltzeko aseguruen bat kontratatu beharko dut.**



**Momentuz gogorrena Bosnia eta Montenegro izan dira, batez ere eguraldiarengatik. Psikologikoki ongi nago, indartsu, nahiz eta egun txarren bat ere badudan, denok bezala. Grezian janaria aurkitzea kostatzen ari zait, herriak oso txikiak dira eta oso jende gutxi bizi da bertan. Oraingoz, kargatuago noa eta egoera salbatzen noa.**

**Egia esan, lau hilabete baino gehixeago daramatzat horrela bizitzen, eta gustatzen zait. Bete ez nuen irteera data bat nuen pentsatua, eta bi egun lehenago atera nintzen. Baina itzultzeko ez dut datarik, eta momentuz ez dut planteatzen. Buruak erranen du noiz den aski, fisikoa baino lehenago nekatuko baita, beraz, momentuz jarraitzen dugu".**

La idea es tirar para Turquía, después ir para Georgia y Armenia. Una vez esté en Armenia tendré que ver en qué mes del año estoy…, porque como destino final me gustaría llegar a Mongolia pasando por ciertos países. Pero también sé que este año no llego a Mongolia y que tampoco estoy preparado para el invierno mongol, así que me tendré que desviar, que pase el invierno y después retomar el viaje.

Comunicación

La comunicación por teléfono sin problemas con el roaming, durante el día voy en modo avión para ahorrar batería, de vez en cuando hago alguna llamada y algún WhatsApp, sobre todo a los padres. La sorpresa fue cuando pasé a Bosnia, allí no tenía red ni nada, llamé a los de la compañía y me dijeron que en estos países no tienen convenio. Después tuve que tirar de esim en los países de Bosnia, Montenegro y Albania, y ahora en Grecia parece que de nuevo es Europa (ironía). Llevo un pequeño botiquín con lo básico. Tengo que dar las gracias a dos buenas amigas enfermeras que me atiborraron de todo, Estitxu y Maddi. A nivel Europa voy con la tarjeta sanitaria europea, pero voy a tener que contratar algún seguro para Asia.

De momento lo más duro, sobre todo por el clima, ha sido Bosnia y Montenegro. A nivel psicológico me encuentro bien, fuerte, aunque también tienes algún día malo, como todos. En Grecia me está costando encontrar comida, los pueblos son muy pequeños y con muy poca gente. De momento voy más cargados y voy salvando.

La verdad, llevo algo más de cuatro meses viviendo así y me gusta, tenía una fecha de salida que no cumplí, salí dos días antes, pero para regresar no. Ni me lo planteo de momento la verdad, la mente dirá cuando es suficiente, porque se cansará antes la mente que el físico, así que de momento seguimos".

**Alicia del Castillo Fiuza**



# TOKIKO MERKATARITZA
# COMERCIO LOCAL

**Ibarrola Etxeak eta Isabelen dendak itxiko dute**

**Ibarrola Etxea**

**Abuztuaren 2an erretiroa hartuko du Maite Ibarrola Manterolak 40 urteko lanaren ondotik; beraz, Ibarrola Etxeak ateak itxiko ditu 107 urteko historia eta gero. Ez ditu pertsianak jautsiko pertsianarik ez duelako, eta bere erakusleihoetan Maitek irudiren bat paratu nahi du, baina ez du denda bat ixten delarik zauria estaltzen saiatzen den paper zuririk paratu nahi. Ibarrola Etxearen historia 1918an hasi zen. Maiteren atautxik, Miguel Ibarrola Mutuberriak, eta bere emazte Angeles Garcia Faltzesek, kinkileria eta bisuteria lizentzia bati esker, Elizaldea etxean negozioa ireki zuten (1813). 1930 inguruan, negozioa Korkollenea etxera (1571) aldatu zuten, eta gaur egun bertan kokatzen da Ibarrola Etxea. Maiteren izebak, Visi Ibarrolak, negozioarekin jarraitu zuen, eta 1985ean Maite, bere ama Eulalia Manterolarekin, dendan lanean hasi zen. Aunitzek gogoratuko dute 1981era arte denetik saltzen zutela. Drogeria zen, baina oihalak, maindireak, mantelak, alkandorak, mahoizko galtzak, botoiak eta bisuteria ere saltzen zuten. Urte hartatik aitzin umeendako arropan eta mertzerian zentratu ziren".**

Cierran Casa Ibarrola y La Isabel

Casa Ibarrola

El 2 de agosto Maite Ibarrola Manterola, tras 40 años de trabajo, se jubila, por lo que Casa Ibarrola cerrará sus puertas tras 107 años de historia. No bajará sus persianas porque carece de ellas, y en sus escaparates Maite quiere que luzca alguna imagen, nada de ese papel blanco que trata de tapar la herida que deja un comercio cuando cierra. La historia de Casa Ibarrola comenzó en 1918, cuando con una licencia de quincallería y bisutería, el abuelo de Maite, Miguel Ibarrola Mutuberria, y su esposa Ángeles García Falces abrían el negocio en la casa Elizaldea (1813), justo enfrente. Hacia 1930, el negocio se trasladó a la casa Korkollenea (1571) que es donde se ubica. La tía de Maite, Visi Ibarrola siguió con el negocio, hasta que en 1985, Maite comenzó a trabajar en la tienda con su madre Eulalia Manterola. Muchos recordarán que hasta 1981 vendían de todo. Era droguería, se vendían telas, sábanas, manteles, camisas, pantalones mahón, botones y bisutería. A partir de ese año se centraron en de ropa de niño y mercería".





**Marisol Iturria (Isabelen edo Marisolen denda)**

**Urriaren 17an itxiko du behin betiko Marisolen dendak, doneztebar aunitzek Isabelen denda izenez ere ezagutua. Marisol Iturria Ruizek erretiroa hartuko du, eta Karrika Nagusiak haurrei gehien gustatzen zaien erakusleihoa galduko du. Bere amak, Isabel Ruizek, hasi zuen negozioa janari denda gisa. Bizitza osoan jarraitu du negozioarekin, barazkiz, frutaz eta garbiketa produktuez inguratuta, baina baita, edo batez ere, kamioiez, traktoreez, panpinez, mahai-jokoez, pilotez eta abarrez inguratuta. Horiei inauteri garaiko salmentak gehitzen zizkien: karetak, maskarak, margoak edo mozorroak. Panpina ebakigarrietatik hasi eta espartinetaraino. Hondarreko urteotako produkturik arrakastatsuenak tamaina guztietako jostailuzko traktoreak izan dira.**

***Tokiko merkataritzarik gabeko herria pixkanaka hiltzen ari da Interneteko erosketen eraginez. Udalak eredu berriak aztertu nahi ditu, eta ideia guztiak ongi hartuko ditu denon ardura den arazo global bati aurre egiten saiatzeko. Gutako bakoitzaren erabakiak eta ekintzak batuz gero, aldaketa garrantzitsuak lortzen ahal dira.***

Marisol Iturria (La Isabel o La Marisol)

El 17 de octubre cerrará sus persianas definitivamente 'La Marisol', conocida por muchos doneztebarras también como 'La Isabel'. Marisol Iturria Ruiz se jubila y la Calle Mayor perderá el escaparate donde más niños han puesto sus ojos y sus manos. El negocio lo comenzó su madre, Isabel Ruiz como tienda de alimentación. Ella ha seguido toda la vida con el negocio, rodeada de verdura y fruta, geles, productos de limpieza, pero también, o sobre todo, por camiones, tractores, muñecas, juegos de mesa, pelotas…, a las que sumaba en tiempo de carnaval caretas, máscaras, pinturas y disfraces. Desde muñecas recortables hasta alpargatas. El producto estrella de estos últimos años, recuerda, han sido los tractores de juguete, de todos los tamaños.

*El pueblo sin comercio local va muriendo poco a poco, a golpe de click. Desde el ayuntamiento se pretenden explorar nuevos modelos y todas las ideas serán bien recibidas, para intentar hacer frente a un problema global, responsabilidad de todos. Si se van sumando las decisiones y acciones particulares de cada uno de nosotros, se pueden propiciar cambios importantes.*

**Alicia del Castillo Fiuza**







# GALBARAIALDE, IBAI BAT BAINO GEHIAGO
# GALBARAIALDE, MUCHO MAS QUE UN RIO

**Galbaraialde Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren, SEPEren eta Ogasunaren egoitza berriaren izena da.**

Es el nombre de la recién inaugurada nueva sede del Servicio Navarro de Empelo, SEPE y Hacienda.

**Galbaraialde ibaia Ezkurra eta Ezpelura errekak Donezteben elkartzen direnean sortzen da Bidasoarekin bat egin arte. Izen hori aukeratu da, halaber, egoitzan dauden hiru administrazioen arteko lotura gisa (Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa –SEPE- eta Ogasuna). Egoitza Donezteben dago, Osasun Etxearen eraikin zaharrean, eta eraikin hori erabat birmoldatu da.**

Galbaraialde es el río que nace cuando en Doneztebe se juntan el Ezkurra y el Ezpelura hasta su confluencia con el Bidasoa, en la misma localidad. Es el nombre elegido también, como nexo de unión entre tres administraciones, para las nuevas instalaciones que albergan el Servicio Navarro de Empleo, las oficinas del Servicio de Empleo Público Estatal (SEPE) y la oficina comarcal de Hacienda en Doneztebe, en el antiguo edificio del Centro de Salud, que ha sido totalmente remodelado.

**Nafarroako Gobernuak 1.291.198 euro inbertitu ditu guzira, eta SEPEk 235.760 euroko ekarpena egin du, Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialaren –Estatuaren eta autonomia erkidegoen lankidetza organoa– bertze funts batzuez gain. Doneztebeko Udalak erabilera horietarako laga du eraikina.**

El Gobierno de Navarra ha invertido un total de 1.291.198 euros, con una aportación del SEPE de 235.760 euros, además de otros fondos de Conferencia Sectorial de Empleo y Asuntos Laborales, órgano de colaboración del Estado y las comunidades autónomas. El ayuntamiento de Doneztebe ha cedido el edificio para dichos usos.







**Mariaje Ganboa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua:**

Mariaje Gamboa Zabalo, Servicio Navarro de Empleo (SNE):

**"Lehen etapa honetan toki berean paratu ditugu erakunde desberdinak: Estatuko administrazioko sail bat eta Nafarroako Gobernuko administrazioko bi organismo; tokiko administrazioa ere sartuko da.**

"Lo que hemos hecho en esta primera etapa es poner en un mismo sitio a organismos diferentes: de administración estatal y dos organismos de la administración del Gobierno de Navarra y entrará también administración local.

**Niri gustatuko litzaidake gureekin bat datozen zerbitzu berriak ekartzea. Agian herritarren arretarako bulegoa, hori izanen litzateke nire ametsa. Hori guztiz bertzelako arreta da.**

A mí me gustaría traer nuevos servicios que compaginen con los nuestros, quizá la oficina de atención a la ciudadanía, ese sería mi sueño. Esa es una atención completamente diferente.



**Asmoa da instalazio horiek aprobetxatu ahal izatea herritarrei zerbitzu berriak emateko, prestakuntza aretoak aprobetxatzeko, baina ez bakarrik Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen prestakuntzarekin, baita bertze erakundeen eta udalen bitartez ere. Beti jendearekin egotea nahiko nuke, goiz eta arratsalde.**

La idea es que se puedan aprovechar estas instalaciones para dar nuevos servicios a la ciudadanía, para aprovechar las salas de formación, no solo con la formación que ofrece el Gobierno de Navarra, sino también a través de entidades, ayuntamientos. Me gustaría que estuviéramos siempre con gente, mañana y tarde.

**Administrazio irekia defendatzen dut, herritarrengandik hurbil dagoena, zerbitzuak errazten dituena, ematen ahal diren zerbitzu guziak ematen dituena..., aitzinetik hitzordua behar den guztietan emanen duena, baina batzuetan hitzordurik ere gabe arreta emanen duena.**

Soy defensora una administración abierta, cercana al ciudadano, que facilite los servicios, que dé todos los servicios que se puedan dar…, de que la cita previa se dé siempre que sea necesaria, pero también, de tener en cuenta que se puede atender sin cita en ocasiones.

**Herritarrei ez ezik, enpresei ere arreta ematen diegu lan eskaintzak paratu ditzaten, eta hori ere oso sektore inportantea da guretzat. Eta garrantzitsuena, lurraldeari arreta jartzea, eskualdea egitea. Hori da enplegu taldeak nahi duena, erronka batzuk identifikatu ditu, eta orain gobernantza pixka bat aldatuko du eraginkorragoa izateko. Hiru hilabetetik behin biltzen jarraituko du, eta horretaz gain, azpitalde batzuk daude; bat, instituzionala da lurralde mailako aferak sustatzeko; gero bertze bat pertsonendako babesa landuko duena, eta hirugarren taldea, gehiago arituko dena enpresen alde. Azken hori da falta zitzaigun lan ildo bat. Hori udalek, gizarte langileek... bultzatu behar dute. Elkarren beharra dugu.**

No solo atendemos a la ciudadanía, también a empresas, para que nos pongan ofertas, que también son un sector importantísimo para nosotros. Y lo más importante, atención al territorio, hacer comarca. Es lo que pretende el grupo de empleo, que ha identificado unos retos y que ahora va a cambiar un poco la gobernanza para ser más efectivo. Se seguirá reuniendo cada tres meses y aparte, hay unos subgrupos, uno es el institucional para promover cosas territoriales, luego otro que trabaje el apoyo a las personas y un tercer grupo que trabajará más en apoyo a empresas, que es una pata que nos faltaba. Hay que impulsar desde los ayuntamientos, las trabajadoras sociales… Nos necesitamos...

→



**Arestian aipatutakoez gain, parte hartzea landu behar da. Gazteengana ez iristeak kezkatzen nau, horregatik jarraituko du Kimua proiektuak Lanbide Heziketako ikasleekin lan egiten. Bi proiektu daude datorren urterako: lehena, enpresen datuekin tokiko mapa bat egiteko proiektua, eta, bigarrena, mugaz gaindiko enpleguari lotutakoa.**

**Bulego honek bi ezaugarri ditu: euskararen erabilera eta mugaz gaindikoa, Gipuzkoa eta Iparraldearekin".**

Y luego hay que trabajar en la participación. Me preocupa no llegar la juventud, por eso los proyectos Kimua, que van a continuar, con los estudiantes de FP. Hay dos proyectos para el año que viene, uno para hacer un mapa local con datos de empresas y el segundo, relacionado con el empleo transfronterizo.

Esta oficina tiene dos características: la utilización del euskera y el transfronterizo, con Gipuzkoa e Iparralde".

**Alicia del Castillo Fiuza**













# JAIOTZAK
# NACIMIENTOS

| | |
|---|---|
| ALMANDOZ LARRECHEA ENEA | **2024/01/13** |
| APEZTEGUIA MINDEGUIA EMMA | **2024/06/11** |
| ARREGI LOIARTE HAIRA | **2024/10/15** |
| BALAN IVAN | **2024/03/01** |
| BALEZTENA ZAMORANO ANNETTE | **2024/10/18** |
| BELTRAN SOBRINO ENERITZ | **2024/09/10** |
| ERRANDONEA ER ROIYDANI SAIF | **2024/03/18** |
| INDA GOYENECHE IZARO | **2024/10/19** |
| IRIBARREN GARCIARENA IZARGI | **2024/03/15** |
| IRIBARREN ITURRIA MARKEEL | **2024/11/18** |
| MICHELENA AROCENA IZEI | **2024/10/09** |
| MIGUELENA ARANBILLET MARKEL | **2024/11/04** |
| MIGUELENA DORAI MARA | **2024/07/13** |
| MINDEGUIA AROCENA OIHAN | **2024/05/15** |
| PEREIRA DA COSTA MATTEO | **2024/04/01** |
| SARRATEA AZCARATE ALAIN | **2024/12/04** |
| TABERNA MINDEGUIA NIKO | **2024/12/03** |
| TELLECHEA MERAYO PABLO | **2024/01/13** |
| VERTIZ BERASAIN INAR | **2024/07/19** |
| VERTIZ ORTEGA MAREN | **2024/04/06** |
| ZABALETA SAN MIGUEL JUNE | **2024/12/28** |




Ongi pasa bestak!
Zergoxoa
FRUTAK FRUTAS
BARAZKIAK VERDURAS
BERA
Kanttonberri, 3........T. 948 630 381
LEITZA
Landabekoa, 2.........T. 948 610 612
DONEZTEBE
Zazpigurutze, 4.......T. 948 451 332
LESAKA
Plaza zaharra, 17....T. 948 637 294
ELIZONDO
Santiago, 47.............T. 948 580 859
Baratzetik etxera


HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI, ERRESPETUZ BESTA EGIN!
Doneztebe/Santesteban Udala
ERASO SEXISTARIK EZ!


marisol iturria
jostailu denda
Ongi pasa herriko bestak!
Karrika nagusia 11 - Tel 948 450 116


CASA SANTAMARIA
HOSTAL·RESTAURANTE
Ongi pasa bestak!!
T 948450043
C/ Mayor 28
31740 Doneztebe - Santesteban (Navarra)
info@hostalsantamaria.es




Jaietan ere LGTBI+
Festek sozializatzeko era garrantzitsua dira, aisialdirako eta dibertitzeko garaia; nahitaezkoa da balioan jartzea eta aniztasun sexuala eta generokoa ereitea berdintasunezko gizarte bat sortzeko.
Pertsona guztiak berezi eta errepikaezinak gara.
Aniztasunak aberasten gaitu!
www.igualdadnavarra.es
Subvenciona / Laguntzaile:
KATTALINGUNE LGTBI+
Servicio Público del Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuko Zerbitzu Publikoa
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030
Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua




Egilea: **June Telletxea Juanenea**